



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko ekainaren 19ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko ekainaren hemeretziaren, arratseko zazpitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, GOICOCHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine.

Deialdiaren eguna : 2024ko ekainaren 14a

Afitxatze eguna : 2024ko ekainaren 14a

1. ERABAKIA: JANTOKIRAKO APAIRUEN HORNITZEKO MERKATUAREN ESLEIPENA ETA JANTOKIKO APAIRUEN PREZIOAREN EMENDATZEA 2024ko IRAILAREN 1etik GOITI

(1.1 nomenklatura)

Ortzaizeko herriak du Ortzaizeko ikastetxeetako (eskola publikoa, Jon Donibane eskola eta Ortzaizeko Ikastola) ikasleentzako bazkariak eskaintzen dituen jantokia kudeatzeko eskumena.

Auzapezak adierazi du, prozedura egokituko deialdia antolatu duela jantokiko bazkari beroak prestatu eta bertara eramanez dituen enpresa hautatzeko. Auzapezak zehaztu du deialdiaren xedea dela esparru-akordio bat lortzea, zeina eskaera-agirien bidez egikaritutako baita, herriaren beharren arabera eta urtean gehienez 75 000 € ZK gainditu gabe.

Gainera, oroitarazi du egunero batz besterik 120 bazkari zerbitzatzen direla hiru eskoletako ikasleentzat. Zehaztu du merkatua urte baterako izenpetuko dela eta hiru aldiz luzatzen ahalko dela.

Auzapezak jakitera eman du bi enpresek erantzun diotela deialdiari eta haurtzaro batzordeak proposamenak aztertu dituela. Eskaintzak aztertu-eta, honako esleipena proposatu du:

- SASU Ausolan Pays Basque – Bertakoa Restauration sozietateari, Baionan egoitza duena, bazkaria bakoitza 3.47 € ZK-ko prezioan (3.66 € ZGB), hots orotara 60 017.20 € ZK zerbitzatuko den bazkari kopuruaren arabera.

Auzapezak oroitarazi du 2023ko maiatzaren 2ko erabakiz, bazkari bakoitzaren prezioa 4,85 eurotan finkatu zela 2023-2024 ikasturterako. Prezio horretan sartzen ziren: 3.40 euro Zerga

Guztiak Barne bazkarien hornitzeko eta 1.45 euro jantokiaren funtzionamendurako.

Ondorioz, Auzapezak proposatu du herriak bazkarien 0.26 euroko emendatzea familiei ordainaraztea, eta horrela bazkari bakoitzaren prezioa 5.11 eurokoa izanen dela 2024ko irailaren 1etik goiti.

Herri Biltzarrari proposatu dio bi puntu horietaz erabakitzea.

Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari SASU Ausolan Pays Basque – Bertakoa Restauration sozietatearekin merkaturatu izenpetzeko, bazkari bakoitzaren prezioa 3.47 € ZK-koa izanik.

- **ERABAKI DU**, Ortzaizeko jantokiko bazkarien prezioa 5.11 eurotan finkatzea 2024ko irailaren 1etik goiti,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, gai horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapideen egiteko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko ekainaren 19an,

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/06/27an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/06/27an.